

IDEIA BATZUK BAPATEKO KANTUAREN ETORKIZUN- IKUSPEGIRAKO

Jon Sarasua

Hautu terminologiko bat eginez, *bapateko kantua* terminoaren bidez zedarrituko dut gogoeta honetarako interesatzen zaidan alorra. Jardunaldiei geronek jarritako goiburua aldatzea da, badakit, eta pena apur bat ematen du “ahozko” terminoa baztertzeak, baina uste dut baztertu beharrekoa dela, gure arloa hobeto fokalizatzeko. Batetik, ahozkotasanak alde guztietatik gainditzen du gure esparrua, ahozkotasuna askoz gehiago da (hitz egitea bapateko ahozkotasuna da, eta kultur sorkuntza mailan, gure esparrutik aparteko jardun pila bat dira bapateko ahozko jardun) eta, ondorioz, zehazgabetasun eta nahaspilara garamatza terminoak. Bestetik, esan beharrik ez dago “kantua” esateak ahozkotasuna berez biltzen duela.

Bapateko kantuaren etorkizun-ikuspegia lantzea eskatu zaigu atal honetan. Uste dut, une honetan, ideia batzuk zirriborratzea dela egin dezakegun gauza bakarra. Izan ere, oraindik bapateko kantuaren mapa-mentala egiten hasteke gaude, ez dakigu zehazki munduan zein eta zenbat garen, gutxiegi dakigu elkarren berri, eta errealtate horren lehen sistematizazioa ere ez gara iritsi. Hala ere, orain arte dakigunetik, -gure kasuan bertsolaritzan izandako esperientziatik, gaztelearen munduko bapateko kantuarekin izandako harreman zuzenetik, eta munduko beste esperientziez izandako zeharkako informaziotik- ez dago sobera, ariketa bezala, etorkizun-ikuspegirako zirriborroak lantzea.

Bederatzi ideia zirriborratu zaizkit niri. Ez dute marko oso bat sortzeko usterik. Idatziz parrafo labur moduan botako ditut, eta, beharbada, (ahozko mundukoak garenez) ahoz zabalduko azalpena.

1. Bapateko kantuari masa-kulturaren itsaso mugikorrean nabigatzea tokatuko zaionez, ez da txarra izango, iparroratz moduan erabiltzeko bada ere, ahalegin bat egitea formulatzen (edo gutxienez zirriborratzen) zein ote diren **bapateko kantuaren balio propioak**. Balio horiez ohartzeak, batetik, masa-kulturaren nabigatzeko galdu behar ez ditugun erreferentziak zeintzuk diren jakiteko balioko digu. Bestetik, itsaso horretan gure ekarpenak zein izan daitezkeen asmatzen lagun diezaguke. Goraxeago esan dugun moduan bapateko kantuaren ezagutzaren eta sistematizazioaren hasieran egonik, zaila da biltzen gaituzten balioak zeintzuk diren indarrez formulatzea. Hala ere, hasteko, geure esperientziaren gogoetatik eta batean eta bestean ikusitakotik, bapateko kantuaren balioak lau multzo nagusitan banatuko nituzke:
 - a) Sorkintzaren **izaera bapatekoa**, serieko erreprodukziorik gabe une-gune errepikaezinean oinarritua.
 - b) **Izaera dialogikoa**. Hitzezko komunikazio ireki eta dialektikoa sorkintzaren material bezala erabiltzea.
 - c) Sortzailearen eta hartzailearen **harreman gertukoa**, feed-backaren garrantzi funtsezkoa. Eta izaera honi lotutako hainbat balio: taldekotasuna, kalekotasuna, zuzenekotasuna.
 - d) Kultur **sorkintzaren subjektua** gizarteko partaide arrunt izatea, arrunt hitzaren estatus-adierari dagokonean. Sortzailearen eskuragarritasun sozial eta ekonomikoa, eta, ondorioz, performanzearen izaera xumea.

Bapateko kantuaren muineko balioa izan gabe, zeharkako balio bat ere erantsi zaio aro honetan: e) Aniztasunaren garatzaile izatea. Hizkuntzei darien sorkintza-bide bat izanik, bere jarduna hizkuntzen aniztasunaren garatzaile da. Berau babestea hizkuntzen eta kulturen aniztasuna babestea da.

2. Egun kultur produkzioa sortzen eta kultur kontsumoa gertatzen den **bideetan behar du sortu eta hedatu** bapateko kantuak. Bapateko kantua bizi den ingurune desberdin bakoitzean egin beharko dira ondorengo galderok. Ingurune horretan zenbateraino daude martxan eta zenbateraino dira etorkizunerako bideragarri masa-kulturaren heda-bideez (hedabideez eta gainerako hedatzeko bideez) aparteko beste zirkuitu eta hedapen moldeak? Aparteko molde horiek badaude, zenbateraino hauek indartu eta zenbateraino masa-kulturaren heda-bideetan txertatu?
3. Lehen puntuan formulatu ditugun bapateko kantuaren balioetatik begira, **joera kezkagarriak eta aukera interesgarriak** erakusten ditu XXI. mendearen hasierak. Batetik, mediatizazio hazkorra erakusten du kulturak, zenbait aspektutan (sare sozialen galera, hedabideekiko menpekotasun hazkorra, hedabideen konzentrazio eta uniformizazio prozesuak...). Bestetik, uniformizazio horren aurrean bada aukera interesgarriak aipatutako balio horien ildotik joateko: teknologia berriek eskaintzen dituzten aukera horizontalak eta ahozko baliabideen funtzionaltasuna indartzea, edota uniformizazioaren aurkako erreakzioak sortu dituen sentzibilitate eta espazioak.
4. Bapateko kantuak **ekarpen bereziak** egin ditzake kultura *humanizatzaile*tzat uler dezakegunaren alde. Lehen puntuan formulatu ditugun lau balioek, aniztasunaren garatzaile izaerak, eta bere mediatizazio apalak potentzial berezia ematen diote horretarako.
5. Masa-kulturaren hedapen bideetan nabigatzea konplexua da, eta kultur mundu mediatizatu honetan erraza da bapateko kantuaren balio interesgarriak lorrintzea, **desbirtuatzea**. Masa-kulturaren logikak (bere merkatu-logikak, bere arrakastaren abiadura azkarrak, bere mediatizazio garaiak) erasan egiten die bapateko kantuaren lau balioei: gerta liteke baliook epe laburrean hustiatu, arrakastarako zurrupatu eta luzerako baliogabetuta uztea.
6. Lorrintze-arrisku hori sahiesteko **bi antidoto** landu daitezke. Bata, gure funtsen eta balioen **kontzientzia argia** hartzea eta horiek garatzeko borondatea izatea. Bestea, **antolatuta egotea**, mugimendu soziokultural moduan. Ez hainbeste sortzaileen interes 'sindikalak' babesteko, baizik eta bapateko kantuaren norabidea gidatzeko, mediatizatutako ingurune zail batean.
7. Egungo kultura munduan bapateko kantuak **oreka** gaiztoa egin behar du. Batetik, bizi egin behar du, eta ez iraun. Hau da, arriskatu, modu berrietan sartu, bere tradizioaren senari eutsiz baina berau bide berrietan garatuz. Bestetik, mesfidatia izan behar du masa-kulturaren hedatzeko bideekin, eta bereziki hedabideekin. Hedabideen funtzionamenduak desitxuratu egin dezake bapateko kantuaren izaera bera.

Zentzu honetan, bapateko kantuaren ekarpenetako bat izan daiteke tarteko zirkuitu izatea: hedabide mediatizatuen eta harreman intimoen tarteko zirkuitu bezala

funtzionatzea. Eta zirkuitu horretan bi ezaugarri garatzea: gertutasuna eta bazterrekotasuna. Etorkizunerako gogoetagai interesgarria da bapateko kantariaren bazterrekotasuna: gizarte zirkulu eta heda-bide nagusietatik edota diskurtso eta ahots onetsien gunetik aparte, berauen ertzean, bazterrean egoteko joera. Ez da dilema-izaerarik gabeko oreka, beraz, planteatzen dena. Bapateko kantari moduan, zenbateraino izan guneko izar eta zenbateraino ertzeko ahots? Ertzeko ahots posea duen guneko izar? Zenbateraino geure gain hartu ertzeko ahots izateak bozgorailuak murriztea dakarrela?

8. Seigarren puntuan esan dugu etorkizunera begira on zaiela bapateko kantuaren adierazpideei antolatuta egotea, mugimendu soziokultural moduan artikulatzea, mediatizatutako ingurune zail batean norabideak markatzeko. Ideia horren jarraipen bezala, eta sorta honetako azken ideia moduan, esan dezadan hemen landutako bapateko kantuaren etorkizun-ikuspegian lagungarri handia izan litekeela nazioarte mailako **harreman-sarea** osatzea. Uste dut, elkarrekin behar ditugula formulatu gure erreferentzia nagusiak, elkarrengandik zerbait daukagula ikasteko bai sorkintzan eta bai antolakuntza-estrategietan, elkarrengandik arnas eta bultzada har dezakegula eta, azkenik, sarea sortzeak gure ingurunetan eragiteko beste indar moral bat eman diezagukeela.